

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

278/2020 Foru Agindua, uztailaren 16koa. Praktiketako funtzionario izendatzea Aintzane Tamayo Pozo, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2017 eta 2018rako enplegu publikoaren eskaintzei dagokien administrazio orokorreko eskalako administrarien azpieskalan karrerako funtzionario sartzeko deialdian

Otsailaren 27ko 133/2020 Foru Aginduaren bidez, praktiketako funtzionarioak izendatu ziren, 2020ko martxoaren 9tik aurrerako ondorioekin, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2017 eta 2018rako enplegu publikoaren eskaintzei dagokien administrazio orokorreko eskalako administrarien azpieskalan karrerako funtzionario sartzeko deialdian.

2020ko urtarrilaren 31n aurkeztutako idazki baten bidez, Aintzane Tamayo Pozok eskatu zuen bere praktiketako funtzionario izendapena atzeratu zedila, arrazoi justifikatuengatik.

Alegatu zituen inguruabarrak aintzat hartuta, Aintzane Tamayo Pozo ez zen praktiketako funtzionario izendatu aipatutako foru aginduan.

2020ko maiatzaren 15eko idazki baten bidez, Aintzane Tamayo Pozok, bere izendapena atzeratzea eragin zuen arrazoa bukatuta, 2020ko uztailaren 17an izenda zezatela eskatu zuen.

Azaldutako horregatik, praktiketako funtzionario izendatu behar da Aintzane Tamayo Pozo, 2020ko uztailaren 17tik aurrerako ondorioekin.

Praktika aldirako destinoa behin-behinekoa izango da. 13. oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, balioespen batzorde bat eratuko da, eta hark epaimahai kalifikatzaileentzat ezarrita dauden jarduteko arau berberak izango ditu, eta praktika aldia eta prestakuntza aldia "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioekin balioetsiko du.

Alde batetik, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren, eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hori. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Praktiketako funtzionario izendatzea Aintzane Tamayo Pozo, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2017 eta 2018rako enplegu publikoaren eskaintzei dagokien administrazio orokorreko eskalako administrarien azpieskalan karrerako funtzionario sartzeko deialdian, Desjabetze Ataleko administrari lanpostuari atxikita (kodea: 2037.001), 2020ko uztailaren 17tik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Praktika aldia egiteko lanpostu atxikipenak behin-behineko izaera du.

Hirugarrena. C1 taldeko oinarrizko ordainsariak eta atxikitako lanpostuari dagozkion ordainsari osoak jasoko ditu.

Laugarrena. Praktika eta prestakuntza aldia ebaluatzeko balioespen batzordeko kide izendatzea honako hauek:

Batzordeburua Presidente	Titularra / Titular	Lourdes Martínez de Lagos Manzana
	Ordezkoa/Suplente	Carlos Auzmendi Irastorza
Batzordekideak Vocales	Titularra / Titular	Alexander Rodríguez López
	Ordezkoa/Suplente	M ^o Carmen Errasti Murguiondo
	Titularra / Titular	Félix Diaz Amundarain
	Ordezkoa/Suplente	Patricia Ruiz Cascajar

Bosgarrena. Foru Agindu honen aurka, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 16a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR